EUSKADIKO TXAKURKROS

LIGA ARAUDIA



ALDEZ AURRETIK

Euskadiko Txakurkross Ligan puntuagarriak diren Mushing motako Txakurkros txapelketak antolatuko dira araudi honetan argitaratzen den moduan. Araudian azaltzen ez den guztia RFEDIren mende arautuko da.

1. TXAPELKETAREN ORDEZKARI TEKNIKOA ETA EPAIMAHAIA

1.1 Ordezkari Teknikoak arauak betearaziko ditu; beraz, bere ardura izango da indarrean dauden araudien mende, txapelketaren antolakuntza eta garapena.

Ordezkari Teknikoa izango da txapelketaren zuzendaria proba bakoitzean.

1.2 Ordezkari Teknikoa kasu guztietan izango da erabakien arduradun nagusia eta Epaimahaiaren babesa eskuragarri izango du, Kronometraje-Arduradunarekin (dagozkion Federazio Autonomikoko kronometratzaileren edo baimendutakoren) eta txapelketaren Albaitari Nagusiaren laguntza profesional eta teknikoarekin batera.

1.3 Txapelketa guztietan Epaimahaiak izan behar ditu:

- Ordezkari Teknikoa (lasterketaren zuzendaria).
- Lasterketaren Epaiak.
- Kontrolen Arduraduna.
- Albaitarien Nagusia.

1.4 Ordezkari Teknikoak txapelketaren Epaimahaiari deituko dio, bere kideen batek eskatu ondoren, beti arau-hausteren bat deskalifikagarria den ala ez aztertzeko. Epaimahaiaren iritzia aholku-mailekoa eta elkargokokidekoa da. Epamahaiaren iritzia entzun ostean, Ordezkari Teknikoak galdetutako kasuari buruzko erabakia jakinaraziko du.

1.5 Epaimahaiak erabakiko du, bere aurrez aurkeztutako kasu guztietan, ea neurri zigortzailerik ezartzerik badagoen.

Berdinketa izanez gero, Ordezkari Teknikoak izango du boto erabakitzailea bere esku. Deskalifikazio kasuetan Ordezkari Teknikoak bere boto erabakitzailez era ezberdinean bozkatu ahal izango du.

2. LEHIAKIDEAK

2.1 Txakurkros txapelketetan partaidetza deialde bakoitzaren baldintzeei lotuko da (betebeharrak, epeak, prozedura eta izen-emate kuota), hauek beti ETL-ren arauen arabera.

3. TXAKURRAK

3.1 Edozein txakur arrazaren partaidetza onartzen da, beti sasoi onean izanda eta derrigorrezko albaitari-kontrola gaindituta.

3.2 Parte hartuko duten txakurrek lasterketaren aurreko egunean **behintzat urte bateko adina** izan beharko dute; ez dago gehienezko adinik, bakarrik txapelketaren albaitariak beraien egoera fisikoari emateko oneritzia.

3.3 Txakurrek jarrita eraman beharko dute derrigorrezko mikrotxipa.

3.4 Ez da txakur arriskutsuen partaidetzarik onartzen; honek ez du bereizten arrazarik, baizik eta ale zehatzak. Aldez aurretik txakur zehatzekin izandako arazoak sartuko dira kirolari espedientean

3.5 Ezin izango da txakurra aldatu txapelketa berean, baina bai txapelketa ezberdinetan.

3.6 Txakurraren izena txapelketa bakoitzaren banako klasifikazio zerrendetan ageriko da.

3.7 Inoiz ezin du txakur berberak txapelketa batean kirolari ezberdin birekin parte hartu, ezta ere egun berean txapelketa batean baino gehiagotan, bigarren txapelketa errelebutako txakurkrosa izan ezik.

4. KATEGORIAK

4.1 Sexu eta adinaren arabera hurrengo kategoriak izango dira:

Junior I -> Gizonezkoak eta andrazkoak (14 - 20 urtekoak).
Senior -> Gizonezkoak eta andrazkoak (21 – 39 urtekoak).
Beterano 40 -> Gizonezkoak eta andrazkoak (40 - 49 urtekoak).
Beterano 50 -> Gizonezkoak eta andrazkoak (50 eta gorako urtekoak).

4.2 Txapelketa baten adina sasoi osoan zehar berdin mantenduko da, hau da, txapelketa sasoia behin bukatuta, lehiakidek abenduaren 31ean izango duen adina. Kontutan izan behar da 4.1 puntuan adierazten diren adinak abenduaren 31koak direla (sasoia behin bukatuta), ondorioz, ez da sasoian zehar kirolariaren benetazko adina izan behar.

4.3 16 urteko kirolari batek aukera dezake senior kategorian parte hartzea. Beterano mailako kirolari batek aukera dezake senior kategorian parte hartzea. Horretarako, kirolariek beraien erabakia RFEDIri (federatua izatekotan) edo ETLri (federatua ez izatekotan) jakinarazi behar diote beraien Federazio Autonomikoen bidez.

Aukeratutako kategoria mantenduko da sasoi osoan zehar, hau da, sasoiko lehenengo txapelketan parte hartu duen kategoria.

4.4 Txapelketan, kategoria batean hiru partehartzaile baino gutxiago izanez gero, antolatzaileak aukera dezake sexuen arabera batzea jarraian azaltzen den moduan:

Junior kategoriarekin batera senior-a batzea, eta senior-rekin batera beteranoena, biak senior kategorian barruan.

4.5 Antolatzaileak haur kategoria (14 urte azpikoentzat) iragarri dezake, bakarrik erakustaldi moduan (klasifikazio barik, denborak neurtu gabe eta sari berdina lehiakide guztientzat), eta gehienenez 500 metrotako ibilbidearekin, beti kontutan izanda kirolaria heldu batekin (txakurrari ere uhal laburragoz lotuta) joango dela.

5. IZEN-EMATEA

5.1 Izen-ematea ETLko Txakurkros txapelketa guztietan egin beharko da txapelketa bakoitzari dagozkion kronometraje plataformen bitartez.

5.2 Datuen Babesaren Lege Organikoaren ondorioz, emandako datu pertsonalak txapelketen barne kudeaketa- eta informazioarentzat bakarrik erabiliko dira.

5.3 Kirolariak egindako izen-ematearen ezeztapenak, behin izen-emate epea itxita, ez dakar berekin, inolako kasutan, partaidetzaren zenbatekoa itzultzerik. Antolatzaileak ezeztatutako txapelketetan, izen-emate zenbatekoa itzuliko da. Hala ere, antolatzaileak ez du lehiakidek izan zezakeen beste gasturen ardura izango, adibidez garraio, hotel, e.a.

5.4 Antolatzaileak ezarriko du txapelketaren izen-emate kuota, lehiakide federatu eta ezfederatu artean 3 euroko ezberdintasuna izanik.

5.5 Izen-emate ordainketa egingo da antolatzaileak txapelketaren deialdian azalduko duen moduan.

6. ERANTZUNKIZUNAK

6.1 Izen-ematean kirolariak aitortzen du araudi hau ezagutzen eta onartzen duela eta berak eta bere txakurrek beste bati txapelketan zehar egindako kalteengatik ardura hartzen du (Albaitari-Kontrola hasi baino 30 minutu lehenagotik Trofeoak banaketa eta ordu bete pasa arte). Kirolari guztiek izen-ematea egitean Erantzunkizun-Zibila-Aseguru bat daukatela bere txakurrak txapelketan zehar eragin litzaken kalteen aurka aitortzen dute.

6.2 Txakurkros txapelketaren antolatzaileak ez du hartzen kirolariek edo txakurrek txapelketan ezta aurreko edota geroko uneetan zehar ere egindako kalteen ardurarik, Horrela adostazen eta onartzen du txapelketan izen-emandako edozein kirolarik.

6.3 Txapelketaren antolatzaileak txapelketa osoa babesten duen Erantzunkizun Zibilaren poliza eduki behar du.

6.4 Kirolaria bere txakurraren arduraduna izango da une bakoitzean, txapelketako lekura iristetik joan arte. Ez da onartzen txakurrak aske izaterik ez txapelketa bitartean, ezta lehenago, ezta bukatu ostean ere.

7. ALBAITARI-KONTROLA

7.1 Txapelketa hasi baino lehen talde guztiek egin beharko dute Albaitari-Kontrola. Kirolariaren ardura izango da txapelketako tokian denbora nahikorekin antolatzaileak, aurreikusita programa jarraituz, kontrola egiteko.

7.2 Kirolaria Albaitari-Kontrolean aurkeztu beharko da parte hartuko duen txakurrarekin, txakurkrosentzako beharrezko materialarekin eta txertoen kartilla-edo pasaportearekin, urtero eguneratuta, kolegiatutako Albaitari batek sinatuta eta zigilatuta, eta ipinitako **derrigorrezko mikrotxipa**ren ziurtagiriarekin.

7.3 Derrigorrezko txertoak hauexek dira:

a) **Amorrukontrakoa**

b) **Balio anitzekoa** (behintzat, parbobirosis-, leptospirosis-, txakur-mukieri- eta txakur hepatitis-en aurkakoa)

c) **Bordetella bronchiseptikakoa (txakur-etxoletako estula)**, Pneumodog-edo Novivac KC-ren antzakoa.

Aurreko gaixotasunen aurka txertatuz gero, txertoa ipiniko da gutxienez txapelketa baino 21 egun lehenago.

Bordetella aurkako txertoa ekitaldian parte hartu baino behintzat hamabost egun lehenago jarri beharko da. Beste txerto guztiak ekitaldia baino hamabost egun lehenago jartzea gomendatzen da.

7.4 Albaitari-kontrolean, kirolariak eman beharko du txakur lizentziadun Zerrenda Ofiziala, proba bakoitzean parte hartuko duen txakurra markata. Txakurraren datuen artean mikrotxipa agertzen dela ziurtatuko da, gero albaitariek erabil dezaten txakurraren identifikazioaren edozein baieztapenerako.

7.5 Albaitari-kontrola gainditutako txakurrek, txapelketan berton osasun arazorik ageriz gero, txapelketako albaitari taldeak aztertzeko aukera izango dute.
7.6 Albaitari-kontrola gainditu ez duten txakurrek ezin izango dute txapelketan parte hartu. Txerto arauak betetzen ez dituztenek, gaitz infekzio-kutsakorren susmopean daudenek, eta Albaitari-Taldeak kanpoan uzteko erabakitakoek berehala txapelketagunea eta bere instlazioak utzi beharko dituzte.

8. DERRIGORREZKO EKIPAMENDUA

Txakurkros txapelketa bateko partehartzaile-taldeek derrigorrez eraman beharko dute jarraian aipatzen den materiala:

8.1 Txakurkros-gerrikoa: Kirolariaren gerrian janztekoa. Kirolariarentzat erosoa izan behar da eta mosketoi batez txakurraren uhala gerrikoari finko lotzeko prest izan behar da. Mosketoia derrigorrez izango da "irekitze azkarra"-koa. Betebehar guzti hauek betetzen dituen edozein gerrikoa, gutxienez 7 zmko zabalerakoa, onartuko da nahiz eta material espezifikozkoak edo mendiko arnes arinak gomendatzen diren.

8.2 Lotzeko-uhala: Kirolariaren gerrikoa eta txakurraren arnesa lotzekoa. Moteltzeko zati elastiko bat izan beharko du. Lotzeko-uhalaren luzeera, erabat luzatuta amarratzearekin, ez da 2 metro baino laburragorik, ezta 3 metro baino luzeagorik izango. Lotzeko-uhala txakurraren arnesarekin lotzeko mosketoi bat edo, ahal bada, hobeto kordino bat izango da. Materiala izan behar da arina, gogorra eta hidrofugoa.

8.3 Txakurraren arnesa: Txakurrarentzako arnesa. Lotzekoa izan behar da eta jarraian aipatzen diren zehaztapenak bete behar ditu:

- Txakurrak apurtuko ez duela eta ihes egingo ez duela bermatzeko nahiko gogorrak izango dira.
- Lotuta dagoen bitartean txakurra babestuko du urratuen aurka. Horregatik txakurraren azalarekin ukitze-azalak izango dira material ez urratzailekorik, ezta zorrotzikorik.
- Talkaguneak (bularrezurra eta lepoaren inguruan) barrubigunak izan beharko dira eta ez dute uztairik edo antzekorik edozein materialezkorik.
- Txakurrari hankak erabat luzatzen utzi beharko dio, trabarik gabe.
- Muturrean kordino bat izango du lotzeko-uhalarekin lotzeko.
- Izatzeraino bizkar gainetik gurutzatutako arnesak gomendatzen dira, tiro indarra txakurraren bizkar osotik hobe zabaltzen dute eta.
- Ez dute edozein materialezko uztairik edo antzekorik izango (egoki babestutakoak izan ezik) txakurrari urratuak edo lesioak egitea sahiesteko.
- Aurreko hanken aurrealdetik horizontalki gurutzatzen diren arnesak debekatuta daude, forma-anormaltasunak eragin ditzatekelako eta aurreko hankak luzatzea sahiesten dutela eta.

8.4 Eskularruak: Ibilbide batzuetan zati korapilatsuak izango balira ere eta kirolariaren eskuak erortzean babesteko, ibilbideren arabera, eskularruak erabiltzea behartu ahal izango da. Dena den, beti erabiltzea gomendatzen da. Ordezkari Teknikoak jakinaraziko du, ibilbideren mende, ea derrigorrezkoa den.

8.5 Oinetakoak: Ez da onartuko txakurrarentzat arriskutsua izan daiteken oinetakorik. Milimetro bateko gehienezko altueretako iltze edo takoak erabil daitezke. Elurretan irristatze aurkako lokarriak edo antzekoak onartzen dira zolan.

8.6 Muturrekoa: Arriskutsuak ez izan arren, beste txakurren aurrean gatazkatiak izaten diren txakurrak muturrekoaz edo azken postuan irtengo dira. Era berean, kirolariak kontutan izango du muturrekoa lasterketa osoan zehar mantentzea, baldin eta txakurraren arnasa normala, eta bere arnasestua sahiestatzen ez badu; beraz, saski motakoa izan beharko da. Edozein kasutan kirolariaren ardura izango da bere txakurra une guztitan kontrolpean izatea; ez egitekotan, zigortuta edo txapelketatik kanporatuta izan leike.

8.7 Ligako proba bakoitzearekin batera antolatuko diren txapelketetan (herri txakurkros deitutakoak), antolatzaile bakoitzak ezarriko du beharrezko materiala beraietan parte hartzeko.

9. IBILBIDEA

9.1 Irteera baino lehenagoko informazio-bileran Ordezkari Teknikoak jakinaraziko du ibilbideari, seinaleztapen-sistemari eta txapelketaren garapenerako edozein garrantzi haundiko xehetasunari buruz.

9.2 Antolatzaileek proba bakoitzaren bukaeran txakurrentzako zuzkidura likidoa prest izango dute.

9.3 Txapelketen ibilbideak 2 eta 10 kilometro artekoak izaten dira. Ibilbideari gehienez bi buelta eman ahal izango zaizkio, txapelketaren luzera osoa betetzeko.

9.4 Euria izatekotan, ez da txapelketa ezeztatuko, kondizio larrietan izan ezik.

9.5 Tenperatura eta humeltasuna irteeragunean neurtuko dira 30 minutu hasi baino lehenago, gerizpean eta lur mailatik gehienez 50 zentimetrotara. Txapelketa osoan zeharko gehienezko eta gutxienezko tenperatua eta humeltasunak erregistratuko dira.

Eguraldi ona izanez gero, tenperatura-alderantzikatzeko aukera kontutan izango da; beraz, tenperatura eta humeltasuna neurtu beharko dira ibilbidearen lekurik altuenean ere, leku bietako neurketaren emaitzarik altuena kontutan izanda. Behin gehienezko- eta gutxienezkoak emanda, antolatzaileek eta Ordezkari Teknikoak hurrengoa erabakiko dute:

- Tenperatura <16º C: Txapelketa garatuko da normalki.
- 16º C ≤ Tenperatura < 18 º C: Ibilbidearen luzeera gehienez 4 km izango da.
- 18 º C ≤Tenperatura < 22º C: Ibilbidearen luzeera gehienez 2 km izango da.
- Tenperatura ≥ 22º C: Ez da irteerarik onartuko.

Tenperatura 18º C–etara iristekotan, eta humeltasuna %85 baino gorakoa izanez gero, Ordezkari Teknikoak bilera bat antolatuko du txapelketaren albaitariekin egokiena erabakitzeko asmoz. Albaitarien iritzia beste guztien gainean mantenduko da. Erabakiaren zergaitirik nagusiena beti izango da animalien ongizatea.

Txapelketaren ibilbidearen arabera (adibidez, zati luze bat eguzkipean, edo beste egoeretan), Ordezkari Teknikoak erabaki ahal izango ditu luzeera laburragoak edo beste konponbide batzuk, kirolean onuragarriak izango direnak, aurreko gehienezko tenperaturak ez iritsita ere.

9.6 Lasterketak batez ere bideetatik, bidexketatik eta mendi-pistetatik igaroko dira, asfaltozko, zementuzko zatiak, azalera urratzaileak,...mugatuko dira hirigunetatik bideetara iristeko beharrezkoetara, gehienez ibilbidearen %10koa izanda.

9.7 Ordezkari Teknikoak, txapelketaren albaitariaren laguntzaz eta probaren ezaugarriak, adibidez, eguneko ordua edo nolako ibilbide eguzkitsua, kontutan izanda, kirolariei neurriak hartzeko aholkatuko die, esate baterako, txakurrak freskatzeko, txakurrentzako ura eramateko edo txakurrak gehiegi ez behartzeko.

9.8 Antolatzaileak temperatura eta humeltasunaren kontrolak egiteko beharrezko tresnak izango ditu.

9.9 Albaitari Nagusiak ibilbidea aztertu ahal izango du bere egoera baieztatzeko eta guneko ezaguera egokia izateko.

10. IRTEERA ETA HELMUGA

10.1 Irteerak banaka, kategoriaren arabera, binaka edo taldezka egin daitezke. Lehiakidea bere txakurra lepokotik edo arnesetik helduta mantenduko da irteerako marra atzean irtetzeko seinalea egin arte.

10.2 Taldezkako irteeretan irteera-parrilla antolatuko da kirolarien arteko gutxienez 1,5 metrotako tartearekin txakurren artean iztiluak sahiesteko. Txakur gatazkatiak irtengo dira azken postuan edo muturrekoaz.

10.3 Irteera eta helmuga artean pistako arau guztiak indarrean izango dira, kirolariak kanpoko laguntzarik jasotzeko aukerarik gabe, txapelketaren araudiak ezartzen duena izan ezik.

10.4 Bukaera-marka txakurrak helmugatik pasatzean hartuko da.

Txip-ekaz egiten diren lasterketetan, txipak zehaztuko du kirolari bakoitzaren marka. Kirolari bik marka berea egitekotan, kontutan izango da beraien txakurretako zein helmugatik lehenago pasa den. Horretarako Txapelketaren Epaiak, edo berarik ezean, Ordezkariak esandakoa kontutan hartuko da. Badago bideo- edo argazki frogagarriak aurkeztea.

10.5 Gomendatzen da antolatzaileek kronometrajerako txipak erabiltzea.

11 PISTAKO ARAUAK

11.1 Lasterketan kirolariak beti txakurraren atzetik korrika egingo du, inoiz bere ondoan kokatu ahal gabe. Gehienez onartuko da bere atzeko hankak parean.

11.2 Kirolariak bere txakurrari tira ahal izango dio bakarrik norabide-aldaketetan, harreta ezaren edo kuriositateren uneetan, pasaleku korapilotsuetan (erreketan, zubietan, putzuetan, bidegurutzetan, eta abar), baina bakarrik oztopoa gainditzeko edo txakurra ibilbidera itzultzeko beharrezko denboran zehar.

11.3 Kirolariak bere txakurra ezagutu behar du eta une guztietan kontrolpean izateko beharrezko neurriak hartu beharko ditu.

11.4 Ez dira onartzen ahozko erasorik, ezta fisikorik ere bakoitzaren edo besteen txakurren aurka.

11.5 Kirolaria eta bere txakurra kontrolgune guztietatik ibilbidetik irten gabe pasa behar dira.

11.6 Lasterketan zehar ezin izango da kanpoko laguntzarik jaso. Kontrolek kirolariari lagundu ahal izango diote bakarrik Ordezkari Teknikoaren aginduz eta aldez aurretik markatutako leku korapilatsuetan, adibidez, baserrietan edo abere-pasagunetan. Txakurrentzako, kirolarirentzako edota beste batzuentzako larrialdietan, behar duen taldeari lagundu ahal izango zaio.

11.7 Ibilbidea zikintzea edo andeatzea zigortuko da, bai zuzkiduraren hondakinez, edalontziz edo janariz, bai txakurren gorotzez. Kirolariaren ardura izango da zuzkiduraren hondakinak zuzkiduragunetatik metro gutxitara jarritako paperontzietan botatzea, eta pistatik bere txakurraren gorotzak kentzea.

11.8 Kirolariak dorsala beti ikusgai eramango du, batez ere kontrolguneetan eta helmugan.

11.9 Larrialdietan derrigorrezkoa da arazoetan dagoen taldeari laguntzea eta kontrol gertueni jakinaraztea.

11.10 Beste talde bat aurreratzeko derrigorrez “PASO” ohiuz jakinaraziko zaio, horrela bestearen txakurra kontrola dezala eta aurreratzea erraztu diezaiola.

Aurreratzeko beti, posible bada, ezkerraldetik joango da, aurreratutako kirolariak albo hau libre utzita eta kirolari biek tiro-uhala laburtuta.

11.11 Ezin da pista osoa okupatuz txakurra, albo batetik eta kirolaria bestetik, korrika egin.

11.12 Kirolari batek froga bertan behera uztekotan gertuen dagoen kontrolari edo antolatzaileei jakinarazi beharko die.

11.13 Txapelketa beste lehiaketarekin batera ospatuko denean, beste atleta partehartzaileekin begirunetsua izan beharko da.

12. SARIAK ETA KLASIFIKAZIOAK

12.1 Behin lasterketa bukatuta eta behin betiko klasifikazioaren arabera, Antolakuntzak trofeoak bananduko dizkie kategoria bakoitzaren lehenengo 3 klasifikatuei.

12.2 Liga osatzen duten txapelketa guztien klasifikazio orokorra egingo da. Horretarako antolatzaile bakoitzak puntuazio eta gertakariak pasako ditu sortutako datuen basera. Txapelketa bakoitzaren puntuazioa honela beteko da:

1.- 50 puntu	2.- 45 puntu	3.- 40 puntu
4.- 38 puntu	5.- 36 puntu	6.- 34 puntu
7.- 32 puntu	8.- 30 puntu	9.- 29 puntu
10.- 28 puntu	11.- 27 puntu....	Eta honela korrelatiboki puntu 1 arte...

Gainera, parte hartzen eta bukatzen duen txapelketa bakoitzagatik, kirolari bakoitzak beste 5 puntu gehiago lortuko ditu bere klasifikaziorako.

Ligaren sariak lortu ahal izateko, 6 txapelketa bukatu beharko dira, horietako behintzat 2 herrialde bakoitzean (gaur egun, Bizkaia eta Gipuzkoa). Ligaren bukaeran kirolari bakoitzaren 6 emaitzik onenak puntuatuko dira eta lehen aipatutako 5 puntu gehituko dira parte hartutako txapelketa gehigarri bakoitzagatik.

13. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

13.1 Araudi honetan ezarritako arauak hausteak, bere larritasun- eta baldintzen arabera, abisu batez, zigor batez edo dezkalifikazioaz zigortuko da, txapelketan zehar jolas edo lehiaketa arauen aurkako infrakzio moduan gogoan hartuta.

13.2 ABISU: Ohar motakoak izango dira, ez dute proba-denboran zigorrik eragingo. Txapelketaren klasifikazio- eta zigorrekin batera zerrendatuko dira eta sartuko dira kirolariaren espedientean. Jarraian azaldutakoak hartuko zigortzeko falta moduan dira:

13.2.1 Lehen aldiz txakurraren atzetik korrika ez egitea.

13.2.2 Dorsala ikusgai ez eramatea, dorsal barik irtetzea edo lasterketan galtzea. Ohartarazpenak ez dauka dorsala ez ikustearen ondorioekin zerikusirik, beraz, antolatzaileek ez dute dorsal gabeko kirolari baten kronoa hartzerik baldin ez badaukate identifikatzeko modurik.

13.2.3 Aurreratzea ez erraztea edo zailtzea.

13.2.4 Irteeran kirolariak bere txakurraren kontrol eza.

13.2.5 Txapelketa baino lehenagoko bilerara ez joatea, derrigorrezkoa ezartzen denean.

13.2.6 Parke kontrola izanez gero, hortik ez pasatzea.

13.2.7 Elkargunean txakurra aske eramatea lasterketa hasi baino lehen eta bukatu ostean.

13.2.8 Lotzeko-uhala ez eramatea antolatzaileak adierazitako adin metroak bilduta.

13.2.9 Pausoa ezarriz talde bati laguntzea.

13.2.10 Ordezkari Teknikoak hausnartzen dituen beste kasu batzuk, behin txapelketa baino lehenagoko bileran iragarrita.

13.2.11 7.3 puntuan aipatutako derrigorrezko txerto guztiak ez azaltzea.

13.2.12 Lasterketen araudiagatik ABISU bat emango da:

13.2.12.1 Baldin ez badio abisatutakoari abantailarik ematen edo beste lehiakideei kalterik ez badie eragiten,

13.2.12.2 Kirola-, lasterketa- edo beste lehiakidearentzako kalterik baldin ezbada,

13.2.12.3 Lehenengo aldiz baldin bada eta beste lehiakide inorentzat ondoriorik ez badauka.

13.3 TXAPELKETA-DENBORAREKIKO ZIGORRA

Jarraian azaltzen diren kasuetan proban egindako denborari minutu bat gehituko zaio:

13.3.1 Bigarren aldiz txakurraren atzetik korrika ez egitean bigarren aldiz edo, lehenengo aldiz, beste lehiakide baten aurkakoa izatekotan.

13.3.2 Txakurra atzetik bultzatzean edo beratik tiratzean, gertatzen den lehen aldian.

13.3.3 Zuzen zigortzen edo deskalifikatzen ez duten infrakzioengatik bi abisu jasotzean.

13.3.4 Behin txapelketa baino lehenagoko bileran iragarrita, Ordezkari Teknikoak adierazitako beste kasu batzuetan.

13.4 DESKALIFIKAZIOA: Kronometrajeren ezeztapena eta kirolariaren ez klasifikatzea eragingo ditu. Deskalifikazioak ez dakar kirolariaren espedientea "zerotik berrabiatzea". Hurrengo kasuetan ezartzen dira falta deskalifikagarriak:

13.4.1 Txakur atzetik korrika ez egitea, gertatzen den hirugarren aldian.

13.4.2 Txakurra atzetik bultzatzea edo beretik tiratzea, gertatzen den bigarren aldian.

13.4.3 Txakurra, norberarena edo beste batena, edo beste kirolari edo antolatzaile gaizki tratatzea.

13.4.4 Txakurraren agresibitate nabarmena edo txakurraren kontrol eza beste taldeak, ikusleak edo antolatzaileak arriskuan jarriz gero.

13.4.5 Ibilbidea ez bukatzea, kontrolgune guztietatik ez pasatzea edo seinalatutako bidetik irtetzen ibilbidea laburtzea.

13.4.6 Baimenduta izan gabe kanpoko laguntza jasotzea.

13.4.7 Ibilbidea zikintzea edo degradatzea.

13.4.8 Antolakuntzaren ekipoei edo materialari apropos kalte agitea.

13.4.9 Istripua izan duen beste talde bati laguntza ez emotea.

13.4.10 Lasterketan zehar txakurra joan uztea, askatzea edo galtzea, nahiz eta gero berreskuratu.

13.4.11 Materiala- edo albaitariaren kontrola ez egitea edo ez gainditzea.

13.4.12 Ezarritako izen-emoteko betebeharrak ez betetzea (Baimenak, txakurraren Erantzunkizun-Zibila-Asegurua, kirolariaren Kiroletako Istripu Asegurua, txerto espezifikoak, izen-emoteko kuota,...).

13.4.13 Kirolariak dopping-aurkako testa egiteko ukatzea edo dopping-aurkako testa pasatzeko beste pertsonen edo txakurren laginak aurkeztea.

13.4.14 Txapelketako albaitari batek txakur bati gaixotasun kutsakorrik diagnostikatzean.

13.4.15 Edozein ibilgailuz eramanda izatea onartzea, txakurra galdu izan ezik.

13.4.16 Zuzen deskalifikatzen ez duten infrakzioengatik hiru abisu jasotzea.

13.4.17 Kirolariak, nahita edo zabarkeriagatik, txapelketako araudia haustean beste lehiakideen aurrean abantaila lortzen badu edo beraiei eragozpenak sortzen badizkie.

13.4.18 CRFDI edo IFSS-n aipatutako edozein beste kasutan.

13.4.19 7.3 puntuan zenbatutako beharrezko txertoak ez azaltzea bigarren aldiz.

13.5 Txapelketako epaimahaiek, kontrolek edota ibilbideko laguntzaile ofizialek arau-ahusleen dorsala idatziko dute eta saiatuko dira ahusleari jakinarazten egindako faltaren une berton.

Epaien, kronometratzaileen, antolatzaileen, edo ere beste kirolarieen hitza nahiko izango da. Txapelketa Epaimahaiak zigor guztiak erabakiko eta ezarriko ditu; aurkeztutako argazkiak edo filmaketak laguntza moduan hartuko dituzte.

13.6 Txapelketekin lotutako disziplinazko gaiak bideratuko dira RFEDIren Kiroletako Disziplina Araudiaren arabera.

14. ERREKLAMAZIORIK

14.1 Txapelketaren klasifikazioak eta zigorrak sari-banaketa baino lehenago argitaratuko dira.

14.2 Erreklamazioak edozein unetan aurkeztu daitezke, beranduenez klasifikazioen argitarapenatik 30 minututara. Idatziz Ordezkari Teknikoari aurkeztu beharko dira Txapelketako Epaimahaiak erabakitzeko sari-banaketa baino lehenago.